



# 'HITZEN LAPURRA' BIHAR GUREA ARETOAN

Haurrei zuzendutako antzezlan 17:00etatik aurrera izango da ikusgai >4

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Ostirala  
2007-11-09

V.URTEA 1.283.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## HITZA ORAIN GERTUAGO

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** Diseinuarekin batera 'mamia' bera ere aldatuko du gaurtik eskualdeko egunkariak

**WEBGUNEA** Garrantzia hartuko du: irakurleek eta gizarte eragileek bidalitakoek lekua izango dute HITZAn 2-4



Isidro Larrañaga (irudiaren erdian) eta akordeoi orkestra osoa, Pragan, saria irabazi ondoren. HITZA

### «Emozio handiz» jaso du Isidro Larrañaga orkestrak saria

**TOLOSA** Pragako Nazioarteko Akordeoi Lehiaketan gailendu ziren akordeoi-jotzaileak: «taldekideek benetan nahi izan dutelako lortu dugu saria», dio Larrañaga zuzendariak 6-7

### Luis Mari Gartzia irakasleari omenaldia egingo diote

**TOLOSA** 27 urtez musika eskolako irakaslea izan eta gero agur esan dio lanbideari 5



Kalejira egin zuten gazteek. I. GARCIA

### Amasarrak bete-betean San Martin jaietan murgilduta

**AMASA** Atzo Gazteen Eguna izan zuten eta gaur txikiaren txanda izango da 5

Zuen, euskara,  
esanetara

Zorionak HITZA!

Tolosako  
Udala

(Euskara  
Batzordea)





Gaurtik aurrera, egunkaria egiteko modua aldatu egingo da HITZAren erredakzioan, eta itxura berria izango dute bai papereko edizioak eta baita webguneak ere. NEREA URBIZU

# Diseinua berritzearekin batera, hainbat aldaketa izango ditu HITZAK

**Hedabideak** » Gaurtik aurrera, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK azal berria izateaz gain, mamia ere nabarmen aldatuko du

## ERREDAKZIOA

Azaroaren bigarren hamabostaldia heltzerako, diseinu berriarekin plazaratuko dira Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako zazpi eskualdetan argitaratzen diren HITZAK.

Ja bost urte igaro dira lehenengo HITZA egunkaria sortu zenetik, Tolosaldean. Haren atzetik iritsi ziren gainerakoak: Oarsoaldeko Hitza, Lea-Artibaialdeko eta Mutrikuko Hitza, Urola Kostako Hitza, Goierriko Hitza, Irutxuloko Hitza eta Busturialdeko Hitza.

HITZA da, hain zuzen ere, azken urteetan euskarazko prentsari ekarpen handienetakoa egin dion proiektua, argitaratzen den eskualdeetan euskararen normalizazioan urrats handia eginez. Zazpi Hitzen artean, egunero, 50.000 ale inguru banatzen dira guztira harpidedunen artean, eta hasierako helburuei eusten die HITZAK, eskualde horietako herri informazioa jorratuz, euskaraz.

## Kazetaritza aldatu egin da

Kazetaritza egiteko modua, ordea, asko aldatu da HITZAK sortu zirenetik, eta gaur egungo kazetaritza eredura egokitzea ezinbestekoa ikusi dute Hitzen arduradunak. Izan ere, azken urteotan, teknologia berriek beste modu bateko ka-

zetaritza eredua ekarri dute. 2007an, hein batean, zaharkituta geratu da albistea sortu eta handik egun batera hori paperean soilik argitaratzea.

Gaur egun, teknologia berriek eta, batez ere Internetek, edozein herritar informazio iturri izatea ahalbidetu dute. Erabiltzaileek bidaltako argazkiak, sarean zintzilikatutako bideoak eta blogetan idatzitakoak eta kontatutakoak osagai garrantzitsua dira gaur egungo kazetaritza.

## Beste modu batera antolatutako egunkaria

Horregatik, Hitzek mamia berria behar zuten. Herritarrek, gizarte eragileek eta zerbait kontatzeko gogoak eta asmoak dutenek horretarako aukera izango duten zerbaitez. Berehalako albisteak, jendearen argazkiak, erabiltzaileen bideoak, eta kirolarekin, kulturarekin, euskalgintzarekin, politikarekin edo tabeste edozein esparrurekin zerikusia duten eragileek elikatuko dituzten blogak oinarritzat izango dituzten webgune berriak prestatu dituzte horretarako.

Webgune horietan argitaratzen dena egunero papereko edizioan islatuko da gero, webgunetik datorrela nabarmen izango duen disei-

nuarekin. Elkar-eragileak izango dira biak, papera eta Internet, eta erronka horri erantzun beharko diote kazetariek.

Lana egiteko modua, beraz, aldatu egingo da erredakzioetan,

gaur egungo kazetaritza egokitu ahal izateko.

## Mami berriarentzat, diseinu berria

Mami berriak, gainera, azal berria

ere behar zuelakoan, diseinua ere eguneratu egin du HITZAK. Erakargarriagoa, garbiagoa eta txukunagoa egiten ahalegindu dira diseinu arduradunak, kazetaritza berriaren erronkei erantzunez.

## Z Zurea da hitza info

# Herritarren eta gizarte eragileen leihoa bilakatuko da webgunea

**Internet** » Irakurleek eta gizarte eragileek bidaltako argazkiek, iritziek eta albisteek ia egunero izango dute lekua HITZAN

## ERREDAKZIOA

*Zurea da hitza*, *Sare@n* eta *entze*ko atalak ohikoak izango dira aurrerantzen HITZAren orrialdeetan. Irakurtzen ari zaren hau bezalako formatuarekin, eta hitz hauen goian ageri den .info horrekin nabarmendurik, Internetetik hartutako albisteek, argazkiek eta bideoek lekua izango dute aurrerantzen HITZAN.

Hori da, hain zuzen ere, Hitza berriaren ezaugarri nabarmen-

enetako bat: harpidedunei, irakurleei, eta gizarte eragileei hitza ematea.

## Saretik paperera

HITZAren papereko edizioan argitaratutako edozein albistaren inguruko iritzia idazteko aukera ematen du HITZAren webguneak, eta tarteka eztabaida interesgarriak sortzen dira horien inguruan. Horiek leku gehiago izango dute aurrerantzen paperean.

Era berean, edozein irakurlek bidaltako argazkiak edota albisteak ere paperean argitaratzeko modua prestatu du HITZAK diseinu berriaren bidez, lehen aldiz sarean argia ikusi duten argazki, albiste edo iritzi horien ispilu, itzal eta erakusle bihurtu nahian.

Hori guztia azaroaren erdialdetik aurrera izango da martxan, papereko edizioarekin batera aldatuko baitira HITZA guztien webguneak ere, diseinua aldatu eta hainbat berrikuntza eskainiz.

## Gizarte eragileen bitartekoa

HITZAren webguneak, aurrerantzean, herrietako gizarte eragileen bitarteko garrantzitsua bihurtu nahi du. Horretarako, kirol taldeek, mendi elkarteek, auzo elkarteek, kultur eragileek, eta zerbait esateko edo kontatzeko duen edonork hainbat aukera izango ditu webgunean: blogak, *Zurea da hitza*, argazkiak eta bideoak bidaltzeko aukera, agenda, zorian agurrak, irudi bildumak eta beste hainbat elementu.

Webgunean etengabe eguneratuko diren albisteak, blogak, bideoak eta iritziak papereko edizioaren osagai garrantzitsuenetakoak izango dira aurrerantzean.

# Webguneari askoz lotuagoa

## ERREDAKZIOA

**T**eknologia berrien eraginez, azken urteotan aldaketanabarmenak izan ditu oraintsu arteko kazetaritza ereduak. Gaur egun, munduko edozein bazterretan zerbaite gertatu orduko, gertatutakoaren argazkiak, bideoak eta informazioa berehala ikusgai dago sarean. Internet sareak, azken batean, kazetaritza egiteko modua aldatu du azken urteotan, eta gaur egungo hedabideen ezinbesteko erronka bihurtu da horri erantzutea.

Horrek, ordea, albistea sortzen den lekuan kazetaria edota albiste hori zabaltzeko prest dagoen herritar bat eskatzen du. Orain arteko zazpi Hitzek, hamaika erredakzioarekin, 102 herritako albisteak jorratu, eta batean eta bestean HITZA argitaratzen duten enpresetako kide diren 342 gizarte eragileekin, inguruan nekez aurki daitezkeen bezalako sarea dute antolatuta horri erantzuteko. Hori guztia antolatuta eta webguneari eta papereko edizioak elkar-eragileak bilakatu, erronka berriari erantzutea da HITZA berrituaren helburua.

Honela, webguneko edukiek tarte berezia izango dute egunero paperean. Era berean, kazetariak sartutako albisteak ez ezik, atal berriak ere izango dira webguneari osagai garrantzitsuak.

Besteak beste, honako atalak

izango dituzte Hitzen webgunen berrituek:

### Blogak

Eskualdeko hainbat lagunek edota gizarte eragileak blogak izango dituzte aurrerantzean HITZAren webgunean: literatura, mendia, eguneroko kontuak, argazkiak, sukaldaritza, ikastetxeak... hainbat gaik izango dute atea zabalik, eta interesgarrienak papereko edizioan ere argitaratuko dira zuzenean, biak elkar elikatuz.

Eskualdez eskualde, kultur eragileek, kirol taldeek, artistek, idazteko zaletasuna duten norbanakoei, eragileek, eta gutxieneko maiztasunarekin zerbaite kontatzeko gogoia duen edonork izango ditu HITZAren blogak zabalik.

### Zurea da Hitza

Herritarrei eta gizarte eragileei zabalduko leihua berria da hau, baina

### Webguneari eta HITZAren papereko edizioak elkar-eragileak bilakatzea da asmoa

koitzari kontatzeko modukoa iruditzen zaion albistea sarean argitaratzeko aukera izan dezan, nahi izanez gero idatzitako albistea argazkiekin eta bideoekin lagunduta.

Blogetan ez bezala, gutxieneko



Toლოსaldeko eta Leitzaaldeko hainbat gizarte eragilek bloga izango dute gaurtik aurrera HITZAren webgunean. HITZA

maiztasun zehatz batekin aritzeko beharrik ez du eskatzen atal honetarako, eta nahi duenak nahi duenean sar dezake albiste, argazki edo bideo bat atal honetan, erakutsi edo salatu nahi duena argitaratzeko.

Blogen kasuan bezala, gainera, atal honetako edukigarrantzitsuenak ere paperean argitaratuko ditu HITZAK, ahal izanez gero hurrengo eguneko egunkarian bertan.

### Bideoak

Edozein erabilzailek webgunean bideoak erakusteko aukera izango du aurrerantzean, beti ere herri informazioarekin lotura duten gaiak oinarritzat hartuz.

Halaber, *Zurea da Hitza* atalean sartzen diren bideo guztiak erakutsi eta gordeko dira atal honetan.

### Edizio jarraitua

Gaur egungoa baino askoz edizio

jarraitu eguneratuagoa edukiko du webgunen berrituek. Kazetariak, eguneko eguneko albiste garrantzitsuenak webgunean argitaratuko dituzte albistea sortu eta lasterrera, eta informazio hori izango dute hurrengo eguneko paperean argitaratuko duten edukia idazteko oinarria.

Azkenean, kazetaritza egiteko modua aldatu da, eta horri erantzutea izango da edizio jarraituaren erronka nagusia. Irakurleek, hurrengo eguneko paperean jasoko dute informazio osatuena, baina berehalako argazkiak, bideoak eta albistearen lehen zantzuak edizio digitalean irakurri ahal izango dituzte eguneko bertan.

### Elkarrizketa digitalak

Maiztasun zehatz batekin, beti ere erredakzioen, eskualdeen eta albistearen arabera, elkarrizketa digi-

talak egiten hasiko da Hitza. Aldez aurretik iragarriko da bai egunkarian eta baita webgunean ere zein izango den elkarrizketatua, eta irakurleek aldez aurretik galderak bidaltzeko aukera izango dute.

Elkarrizketa egin eta hurrengo eguneko papereko edizioan argitaratuko da.

### Irakurleek bideoak, argazkiak eta albisteak sartzeko aukera izango dute orain webgunean

### Agenda

Agendako ekitaldien berri eman ahal izango du edozein herritarrek edo gizarte eragilek webguneari bidez, erabilzaileak berak ekitaldiaren informazioa emanaz.

## » INKESTA

Zer iruditzen zaizu HITZAK abiarazi duen kazetaritza egiteko modu berria, bere webgunean parte hartzeko aukera emanaz eta hori gero egunero papereko egunkarira eramanez?



«Guretzako garrantzitsua da aukera hori izatea»

**Rita Calderon**  
EREITE ELKARTEA

Oso garrantzitsua da guretzako aukera hori izatea. Gure gauzak eta gure albisteak komunikatzeko modu berria izango da eta modu oso azkarra gainera. Guk ez dugu webgunerik, medio gutxi ditugulako, eta HITZAK guri aukera hori ematea oso garrantzitsua da guretzako.



«Gure zeregina ahalik eta lasterren informatzea da»

**Jon Miranda**  
TXOLARRE IRRATIA

Oso ondo iruditzen zait. Tokiko hedabideen zeregina informazioa ahalik eta lasterren ematea da, bai irratian eta bai beste medioetan, gertuko den informazio hori irakurleek eta entzuleek ahalik eta lasterren izan dezaten. Izan ere gure gara baita ere informazio hori eskuratzeko aukerak dituzte.



«Herriariarekin zuzenean komunikatzeko bidea da»

**Maite Chocano**  
TOLOSARRE ORFEOIA

Interesgarria eta positiboa iruditzen zait. Gainera uste dut bide irribat dugula gauzak komunikatzeko, hain justu, herriari berari zuzenean. Izan ere, guk egiten dugun guztia Tolosan bertan egiteko bideratua dago. Bestalde, gure jardunaren ere argi ikusten dugu teknologi berriak erabili behar direla.



«Blogean eguneratuta izango ditugu ekintzak»

**Ana Trapero**  
TOLOSARRE SAHARAREKIN

Gure aldetik beste aukera bat da, eta aukera ona, batez ere jende gazteari zuzentzeko, ordenagailuen kontuak gehiago kontrolatzen baliatuzte. Ekintza ezberdinak izaten ditugu eta HITZAKo gure blogean hori izango ditugu eguneratuta eta bertara sartzen diren ikusi ahaliko dute zertan ari garen.



«Pauso handia da HITZA ematen ari dena»

**Jone Urteaga**  
LASKORAIN IKASTOLAKO ZUZENDARIA

Iruditzen zait HITZAK aurre hartu nahi izan diola datoen aurrerapidei. Baliabide informatikoak ezinbestekoak dira gaur egungo komunikazio munduan eta oso pauso handia da ematen ari dena. Bestalde, ikastetxe bezala egiten duguna bide horretatik plaza-tzea ezin egokiagoa da guretzako.



HITZAren ibilbideaz hitz egin, izan dituen aldaketak erakutsi, eta dituen erroka berriak izan zituzten hizpide Joxemi Saizarrek, Noelia Lataburuk eta Iñigo Terradillosk atzo Tolosan. ASIER IMAZ



Eskualdeko udalen ordezkariak, euskalgintzako kideak eta gizarte eragileak elkartu ziren atzo aurkezpenean. A. IMAZ

# Kazetaritza berria, itxura berria

**Hedabideak** » Sortu zenetik ia bost urte igaro diren honetan, garai berrietara egokitzeko tenorea iritsi zaio HITZA komunikazio proiektuari

## ASIER IMAZ

Atzo aurkeztu zen jendaurrean TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA berritua. Irakurleengan-dik gertuago egoteko asmoarekin ekin dio bide berriari proiektuak, eta horren ispilu izan zen atzo Tolosan egindako ekitaldia ere. Errota Haur Liburutegian elkartu ziren enpresako arduradunak, langileak, irakurleak eta HITZAko partaide diren hainbat gizarte eragile. Azala eta mamia erabat eguneratu ditu HITZAk, eskualdeko informazio jarioari egoki erantzuteko eta hasieratik izan dituen helburuei hobeto eusteko.

## Garai berrietara egokitu

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAko proiektuaren sustatzaile eta zuzendari ohi Joxemi Saizarren hitzekin abiatu zen atzoko aurkezpena. «Azala eta mamia berritze beharra sentituta, hainbat aldaketa eginda aurkeztuko dugu gaur HITZA. Izan ere, kazetaritza

egiteko modua aldatu egin da HITZA sortu genuenetik, eta horri erantzutea izango da gure erroka berria», adierazi zuen.

Ondoren, aldaketaren nondik norakoak azaldu zituen ikus-entzunezkoa ikusteko aukera izan zuten gonbidatuek. Bertan azaldu ziren HITZA proiektuaren jatorria, urteotan izan duen garapena eta gaur egun dituen erroka berriak. Bi eskualdeetako irudiez gain, Euskal Herrian dauden beste sei Hitzetako irudiak ere ikusi ahal izan zituzten bertaratuak. Hamarka erredakzio, 102 herri, 50.000 ale egunero, milaka albiste dagoeneko kalean...

## Jendearen harrera

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAk egindako deialdi zabalari erantzunez, jende ugari bildu zen Errotan. Ekitaldiaren ondoren, lagun arteko giroan berriketarako aukera egon zen, pintxoren bat edo beste janaz.

Esan bezala, webguneak aukera handiak eskainiko ditu aurrerantzean irakurleen parte-hartzea bultzatzeko. Bide horretan, ezinbestekoa izango da guztiok aldeketa honetan sinestea eta guztion artean HITZA erreferente bilaketzea. Kazetaritza berriari gogoz ekingo diogu.

## HITZAk duen gizarte eragile sareak erraztu egingo du parte-hartzea...

Bai. Gaur egun, ia 80 gizarte eragile dira TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA argitaratzen duen enpresako kide, eta horien artean denetik dago: mendi elkarreak, kirol taldeak, alderdi politikoak, kulturarekin zerikusia dutenak, elkarre gastronomikoak, eskolak, eta abar. Argi dugu horiek gertuago senti dezaketela HITZA beste hedabideren bat baino, hurbilagoak izan gaitezkeelako, elkarrekin ari garelako bidea egiten, eta gustura erakutsi ditzaketelako egiten dituzten ekimenen argazkiak edota bideoak bihartik aurrera sortzen hasiko garen blogetan eta antzekoetan. Gero horiek paperera eramatea ezinbestekoa da. Aurrera begira, ahal izanez gero, egunkariaren herena saretik ekarritako edukiekin osatzea da gure helburua.

## «Tecnologia berriek informazio iturri bihurtu dute edonor, horri erantzutea ezinbestekoa da»

**NOELIA LATABURU** » Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren zuzendaria

**Kazetaritza** » Azal berriarekin argitaratzeaz gain, mamia bera eta lan egiteko modua ere aldatuko direla dio

## ERREDAKZIOA

«Etorkizuneko kazetaritza». Hitz horiekin definitu du Noelia Lataburuk (Tolosa, 1982) egunkaria egiteko TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAk gaur abiaraziko duen modua. Diseinua ez ezik, «mamia eta lan egiteko modua» ere aldatuko direla nabarmendu du.

**Bihartik aurrera HITZAk diseinua garrantzia hartuko du. Webguneak ere garrantzia hartuko du, ezta?**

Bai, halaxe da; nahiko argi dauka zaharkituta geratu dela egunkarietako orain arteko kazetaritza eredua: albistea bildu, landu eta hurrengo egunean hori paperean



IÑIGO TERRADILLOS

argitaratzea. Gaur egun, webguneetako edizio jarraituek eta webguneetan herritarrek idazten dituzten iritziek edota bidaltzen dituzten albisteez gero eta garrantzia handiagoa dute. Azken bate-

an, teknologia berriek edonor bihurtu dute informazio iturri, eta horri erantzutea ezinbestekoa da. Ez daukagu zalantzarik: honelakoa izango da etorkizuneko kazetaritza. Halaber, diseinuan ere

aldaketa bat beharrezkoa ikusten zen.

**Beraz, herritarrek, irakurleak eta gizarte eragileak informazioa iturri zuzena bihurtuko dira aurrerantzean?**

Hori da. Diseinu berria prestatu dute diseinatzaileek, eta gaurtik aurrera soineko berri horrekin egingo du HITZAk bidea. Mamia aldatzea, ordea, irakurleei dago-kie. Azken batean, irakurleen blogak, bideoak, argazkiak eta iritziak izango dira gure arroparik preziatuena hemendik aurrera, egunero-egunero. Etorkizuneko kazetaritza hori da, bakarrik. Hitz sortu genuenean ere argi esan genuen: denon artean eta denontzat egindako egunkari plurala eta herritarra argitaratzea da helburua, iritzi guztiek lekua izango duten plaza zabala. Inoiz baino gehiago, herritarrena eta irakurleena da orain HITZA.

**Eta nola izango da guztia posible?**





Luis Mari Gartzia 27 urtez izan da musika eskolako irakasle. LEIRE MONTES

## Omenaldi-agurra egingo diote Luis Mari Gartzia irakasleari

**Tolosa** » 27 urtean izan da Musika Eskolako irakaslea, eta orain, horrenbeste urteren ondoren, agur esan dio bere lanbideari

Gaurko saioan, ikasle ek modu berezian eskainiko diote beraien «omenalditxo» irakasleari: hainbat taldetako musikariek genero askotariko abestiak joko dituzte.

### Estilo askotariko abestiak

Akordeoi taldeak Henry Manciniren *Pink Panther* abestia joko dute. Abesbatzak Allan E Naplaren *Hine Ma Tov* kantua abestuko dute. Mariaje Rekondok joko du pianoa eta Arantxa Padilla izango da zuzendaria. Txistu eta Dulzaina taldeko ikasleek *La dominguera* abestuko dute, Iñaki Letamendia eta Joxe Manuel Agirreren zuzendaritzapean.

Hurrengo emanaldia Oberena laukotearena izango da. Ignacio Alkain, Patxi San Sebastian, Lierni Ugartemendia eta Amaia Altunak Irina Lazaryevak moldatutako Gardelen *Por una cabeza* tangoa interpretatuko dute. Azkenik, ikasleen bandaren txanda izango da. Miguel Angel Moreno Bagüesen zuzendaritzapean Candido Albisturren *Navarrica* izeneko jota joko dute.

### ERREDAKZIOA

Bihar, 27 urtean Musika Eskolako irakaslea izan den Luis Mari Gartzia Artetxeri, omenaldi-agurra egingo diote. Egun berezi honetan bere alboan izango dira bere lankide eta ikasle izandakoak. Ekitaldia Tolosako Musika Eskolako areto nagusian izango da, 12:00ak aldera. Saioaren amaieran oroigarri bat emango diote Gartzia Artetxe irakasleari. Jarraian, bere omenezko bazkarira bilduko dira bertaratu-takoak. Ekitaldia irekia izango da, eta nahi duen orok hartu ahal izango du parte.

Klarinete irakasle bezala ibili da azken urteetan, baina saxofoi klaseak eman ditu ere. Gartzia Artetxe beraren hitzetan, horrenbeste urtez lan egin ondoren, «jubilatze-garairia» heldu zaio.



## San Martin jaiak pil-pilean daude

**AMASA** » Amasako festen baitan, atzo Gazteen Eguna izan zen. Urteroko ohiturari jarraituz, trikitilari eta dulzaineroen konpainian ondo gosaldu ondoren, oilasko biltzen ibili ziren goizean zehar. Ondoren, 14:00ak aldera plazara inguratu ziren eta Uxo-Toki elkartean bazkaria egin zuten. Egun hau berezia izan ohi da

amasar gazte gehienentzat, askok eta askok lantokie-tatik jai hartzen baitute festan parte hartu ahal izateko. Gaurko ekitaldiak arratsaldean hasiko dira. 17:15ean Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldia izango da, eta ondoren txokolate beroa. Amasako XVI. Bakailao Lehiaketa ere gaur izango da. ERREDAKZIOA

## 'Hitzen lapurra' antzerkia bihar

**Villabona** » Umeei zuzendutako ikuskizun berri honek bertsoaritzatu du oinarrian, eta hitzak dira garrantzitsuena

### HARRIET BELLOSO

Bihar, arratsaldeko 17:00etan eta Gurea Antzokian, *Hitzen lapurra* antzerkia izango da ikusgai. Txon-txongiloekin eginiko antzezlan da eta hiru eta zortzi urte bitarteko

haurrei zuzenduta dago. Euskaraz izango da, eta iraupena 45-60 minutu ingurukoa izango da. Sarreak bertan egongo dira salgai, 4 eurotan.

«Ander, Libe eta Amaia gustura dabilta jolasean. Herriko plazan itsatsi dituzten hitzekin koplak eta abestiak kantatzen dituzte. Baina bertatik alde egiten dutenean zapi beltzez estalita agertu da norbait misterioz beterik. Hitzen lapurra da, eta bertsoak egiteko behar dituen hitzak lapurtu ditu. Haurren

laguntzarekin jakingo dute, azkenean, nor den lapur zikoitz hori. Musika doinu alaiak istorioaren amaiera biaz argituko dute» diote.

### Hitzak dira protagonista

Gizakien arteko komunikazioan eta bizitzan bertan aparteko garrantzia dute hitzek, eta horregatik ikuskizun hau bertsoan oinarritzen da. Protagonista nagusiak istorio txoaren zehar hitzarekin ibiliko dira jolasean, baita ikus-entzuleak ere.

**LEABURUKO OSTATUA**

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea izan ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu  
Tel.: 943 67 15 48

**NEREX**  
Lentzeria

Bodiak  
Pijamak  
Kamisiok  
Kamisetak  
Betoiak  
Pikardiak  
Tangak

Erremontari Kalea, z/g • TOLOSA  
Tel.: 943 67 16 30

**EUSKAL HERRIAN ZEHAR MENDI IRTEERA** Azaroak 11 Igandea

**NAFARROA**  
Bardeetara bizikletaz

**08:00etan** Ibarraکو plazan geratuko dira.

**Oharra:** informazio gehiago 691563204 telefonoan

ANTOLATZAILAK: BAI EUSKAL HERRIARI eta HAITZETAN RAJU

www.cajalaboral.com/pro

CAJA LABORAL  
**PRO**  
PROFESIONALIAK AUTONOMIAK HERRIARIK

Zure negozioa denik eta eraginkorra izateko modua.

CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

# HAUSPORIK TREBEENAK

**Musika** » Europa mailako akordeoi lehiaketa nagusian sari nagusia eskuratu du Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak Pragan

I. TERRADILLOS - N. URBIZU

**P**ragatik bueltatu dira Tolosako Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrako partaideak. Ez esku hutsik ordea: Europako saririk garrantzitsuenak ekarri dute besapean, Pragako Nazioarteko Akordeoi Orkestra Txapelketako saria, alegia.

22 akordeoi-jotzaile abiatu ziren Tolosatik urriaren 30ean Praga aldera. München egin zuten lehendabiziko geldialdia 22 ordu autobusean eman ondoren. 5 ordu falta ziren Lehiaketa hartuko zuen hirira iristeko. Praga ostegun gauean zapaldu zuten lehenengoa.

## Ostiralean buru-belarri

Ostirala izan zen egunik gogorrena, hotelean eman baitzuten egun osoa, konzentratuta: entseguak, beroketak, azken ukituak findu... Izan ere, orkestra honen berezitasunen artean, azken momentura arte hobetzeko zerbaitez da. Jotzaileen esanetan, «obra bere momentu gorenera lehiaketako unean iritsi zen».

Egun osoa entseguen pasa ondoren, kontzertuko garaia iritsi zen. Hurrengo egunean etorriko zena frogatzeko, mesedegarri izango zela onartu dute. Bertan, lehiaketan aurkeztuko zituzten bi obrak jotzeko aukera izan zuten: azkeneko testa lehiaketaren aurretik. Hala ere, ez zuten lasai lo egin, elizan ez baitzuten nahi bezala jo: elizako sonoritateak ez zuten gehiegi lagundu akordeoi-jotzaileen arabera.

## Lehiaketako garaia

Larunbata: 11:00ak aldera National Culture House of Vinorado auditorio dotorerara abiatu ziren, ordu erdi beranduago lehiaketan parte hartzeko. 15 minutuko saioa egin behar zuten orkestra bakoitzak. Guztira 15 talde izan ziren lehian nor baino nor.

Isitxo Larrañaga zuzendariak

batuta hartu eta Tolosaldeko akordeoi-jotzaileak hauspoei eragiten hasi ziren. Liszt-en *Hungariar Rapsodiarekin* ekin zioten: adierazkortasunari egin zioten lekua momentuan jotzen ari zirela sentituz, ordura arte jo bitartean sentitu ez zutena sentituz, eta Liszt berabizirik balego-emozionatuz.

Ondoren, Bach-en *Praefagium* obra jo zuten entzuleen gozamenarako. Honetan beharrezko teknika eta espresioa dotore erakutsi zuten Tolosaldekoek, Larrañagaren gidaritzapean.

Bi obra hauen zailtasuna eta jotzeko modua hartu zituzten kontuan epaileek: «Musikako atal eta alor asko erakusteko obrak dira aukeratutako bi hauek, eta ia perfektu interpretatu genituen». Emaizta ikustea besterik ez da behar: 25 puntutik 23,8 lortu zituzten, edo *outstanding* kalifikazioa (bikaina baino hobea).

Orduan atera ziren azken hila-beteetan pasatako tentsioak: akordeoilariekin joan ziren guraso eta lagunek ere negar egin zuten, musikariekin batera.

## Nazioarteko beste sari handi bat

1989an Grand Prix izena zuen nazioarteko lehiaketan parte hartu zuen Tolosako akordeoi orkestrak eta orduan lehenengo saria eskuratu zuen. 18 urteren ondoren, eta guztiz berritua den talde batekin, orkestrak nazioarteko sari garrantzitsuen irabaztea lortu du berriro. 13 eta 40 urte bitartekoak dira guztiak, eta ez da duela 18 urteko inor talde berri honetan geratzen.

27 urteren baitan hainbat sari lortu ditu Isidro Larrañaga orkestrak, baina, dudarik gabe, Pragakoak itzala egiten die beste guztiei.

Azken hilabeteetan egin dako lan handiarekin lortu duten esker onak Tolosaldean musikari handiak daudela erakusteaz gain, gozoz eta ilusioz aritzearen garrantzia agerian utzi dute.



Praga Nazioarteko Akordeoi Orkestra Lehiaketan parte hartu zuen taldea. HITZA



Pragan bertan, lehiaketaren aurreko egunean, eskaini zuten kontzertua eliza dotore batean. HITZA

# Kimetz

denda berria

Mutil arropa  
Kale Nagusia 13  
943 24 94 96

Neska arropa  
Kale Nagusia 21  
943 67 38 62

www.kimetz.eu

# «Taldekideek benetan nahi izan dutelako lortu dugu saria; bestela ezinezkoa izango litzateke»

**ISITXO LARRAÑAGA** ▶ Isidro Larrañaga Orkestrako Zuzendaria

**Musika** ▶ Jotzaile izan da eta egun orkestra bereko zuzendaria da; pribilegiatuztat du bere burua duen taldearengatik

I. TERRADILLOS - N. URBIZU

Isitxo Larrañagak 8 bat urte daromatza Isidro Larrañaga Akordeo Orkestra zuzentzen (Tolosa, 1960). Pragako saria bulegoan, eta orkestrak jaso dituen sarietako agiriak horman ikusgai, emozio handiz gogoratzen du Pragako bi-daia.

**Asko prestatu duzue Pragako lehiaketa. Nolakoak izan dira entseguak?**

Astean behin elkartu beharrean, hirutan elkartu gara. Urtebete inguru aritu gara prestatzen txapelketa hau. Gogorrikizan dira entseguak, norberak egindako lana atzean ere dago, lan handia eta ordu asko. Baina gogo handia zegoen. Azken finean, pribilegiatua naiz horrelako talde batekin lan egin ahal izateagatik.

**Orain musika era ezberdinetara egiteko aukera dago. Nola lortu 26 laguneko akordeo orkestra mantentzea?**

Zaila da, gero eta zailagoa. Gazte jendeak sufritu eta aritu egin behar du horretan. Gauza asko sakrifika-tu behar dira. 13 urtetik 40 urte bitarteko jendea dago, batzuk haurrak dituzte, beste batzuk unibersitatean daude ikasten, beste



I. TERRADILLOS

batzuk lanean, eskolak besteak... Gaur egun gazteek botoibat sakatu eta dena eginga dute. Beti motibazioa bilatu behar da. Baina hauek oso ondo ulertzen dute elkar eta gogotsu datoz, gainera gustura gaude. Argi dago sari hau ateratu dutela beraiek nahi izan dutelako. Inportantea da ere beti helburu bat izatea, zerbaiti heldzea.

**Europako saririk handiena eskeratu duzue.**

Oraindik ez dugu sinesten, nire ustez. Lehenengo zer jo behar dugun erabaki, nola erakutsi epaileei musikako arlo ezberdinak 15 minututan... Maila goreneko txapelketa joanda, zerbait zaila prestatu behar da, baina gainera, gero ondo jo. **Eta jotzeko une hori?**

genuen hasieratik, batez ere, azkeneko hilabetean. Horrez gain, uste dut bezperako kontzertuak garrantzi handia izan zuen: Guridiren *Baserra* jo genuen eta arrakastatsua izan zen, dantzari eta guzti. Kontzertu honek nerbio asko kendu zizkigun, han geratu ziren.

**1989an orkestrak Grand Prix sari handia jaso zuen baina orduan zeudenetako inorez dago orain.** Orkestrako mitoa bezala ginen. Duela 27 urte sortu zen orkestra, eta orduan zein maila genuen ikustera joan ginen, probatzera. Irabazi genuen. Orain bertan zeuden batzuk profesionalak dira, musi-

koak dira. Oraingo orkestra honekin ere berdin pentsatzen genuen: ea guk zer egiten dugun! Azkenean, sari nagusia.

**Zuzendariaren papera garrantzitsua da orkestran.**

Bai, baina jotzaileen gogorik gabe ez dago saririk. Duela urte bat hasi ginen prestatzen, baina dosifikatzen jakin behar da. Lehenengo hilabeteetan asko landu genuen, jendea uda igaro ondoren freskago dagoelako. Duela hilabete oraindik gauzak berde ikusten genituen, eta gutxinaka gora eta gora joan gara, maila hau lortu arte, egoera horrek lana eginarazi egin duela jendea. Ezin duzu mantendu tentsioa hasiera-hasieratik. Egiteko lana behar da beti. Hori askotan ez da lortzen eta agian ez dugu inoiz berririo joko horrela, baina...

**Eta hemendik aurrera?**

Hemendik aurrera lortu dugun hau sinesten hastea, lasaitu eta ospatu. Baina jendea gogotsu dago.

Egia esan, gozatu egin genuen jotzeko garaian, gozatu. Bukatu genuen eta emozionatuta geunden, hor nabaritzen zen zerbait; bagenekien ondo egin genuela: gu gure lanarekin konforme geunden. Baina han zegoen maila izugarria zen, oso altua: txekiarrak, alemaniarak... bigarren edo hirugarren egin genuela esanda ere, pozik. **Liszt eta Bach prestatu dituzue: zailak dira.**

Bai, zailak. Egia esan, guztia jarri genuen jokoan. Baina serio hartu

Lizardi poeta, 2 - Tel.: 943 65 29 01 - TOLOSA

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Beasainen, 75 m<sup>2</sup>-ko etxea. 50 m<sup>2</sup>-ko terrazarekin. 3 logela, sukaldaria, egongela, bainu-gela eta trastelekua. 680 23 85 12.

### EROSGAI

■ **Umeentzako aukia.** Umeentzako Quinny XL Freestyle 3 markako bigarren eskuko kapazoa erosi nahi nuke. 618 47 13 17.

### LANA

■ **Haur zaintzailea.** Tolosan, emakume euskalduna behar da bi haur zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 646 95 06 59.

**Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen du Jarduna.**

- KONTABILITATEA
- ZERGAK
- NOMINAK
- KOBRANTZAK

Zerbitzu guztiak **euskaraz** betetzea bermatzen dizugu

Zure enpresarentzat administrazio zerbitzu profesionala eta euskalduna nahi baduzu, jarri harremanetan gurekin

**Jarduna**  
administrazio zerbitzuak

Martin Ugalde Kultur Parkea  
ANDOAIN  
943-30 40 30  
administrazioa@jarduna.net

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldecohitz.info / Tel.: 943-65 56 95





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** 55-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Inigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818  
tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info. **Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info. **Villabona:** 687 410 022. villabona-aizondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetaledea:** 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialedea:** 687 410 034. alegialedea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitzaile:** 687 410 118. leitzaile@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko**

**BERTAKO**  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaileko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai**  
Euskarari



**'Hitza' diruz lagutzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Usabal kiroldegiko hidromasajea gaurtik aurrera berriz ere martxan dagoela jakinarazi dute arduradunek.  
■ **Tolosa.** *Gizakia eta erlea* hitzaldia Luis Mari Intzak eskainia, Tolosako HHI, 15:00etatik aurrera.

### Antzerkiak

■ **Irura.** Zenbat Gara antzerki taldeak *Amama Pantzikaren altxor ezkutua* eskainiko du Irurako Ikastolan, 17:30ean.  
■ **Alegia.** Haurrei zuzendutako *1,2,3... Inaxito* antzezlan Alegiko Kultur Etxean.

### Musika

■ **Tolosa.** Ainara Legardon (Bartzelona) eta Saioa Bonberenean, 22:30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Moran, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

# HITZArekin, munduan barrena

**Tolosaldea-Leitzailea** »  
Gaurtik abenduaren 12a arte harpidedun egiten diren artean bidaia zozkatuko du HITZAK


### ERREDAKZIOA

Gaurtik aurrera azal berriarekin plazaratuko da HITZA. Aldaketarekin batera, bi asteotan ohi baino milaka ale gehiago banatuko ditu eskualdean zehar, egun harpidedun ez diren gunea ere iristeko.

HITZA sortu zenetik zenbait urte igaro diren arren, oraindik ere izango baita eskualdeko informazioa euskaraz ematen duen egunkaria jasotzen ez duenik. Berantiar horiek erakarri asmoz, HITZAK harpidetza kanpaina abiarazi du. Zehazki, abenduaren 12a bitartean HITZAREN harpidedun egiten diren artean, bidaia zozkatuko da.

### Bidaia hautatzeko aukera

HITZAREN harpidetza orain egin eta zozketa bidez bidaia irabazten duen lagunak



Hainbat herrialderen artean hauta dezake irabazleak. HITZA

HITZAK zehaztu dituen zenbait lekuren artean hautatzeko aukera izango du, leku horien artean gustukoena di-tuen herrietara joateko.

Besteak beste, Kuba, Costa Rica, India, Egipto, Mexikoko Riviera Maya, Brasilgo Salvador de Bahia, Gambia, Kanariar Uharteak, Istanbul edota Jordaniara doan bidaiatu ahal izango du bidaia irabazten duen harpidedun berriak. Horretarako, nahikoa izango du HITZAREN harpidetza egitea, gutxienez urtebeterako.

## A Agurrak



**Urte asko askoan!**

Zorionak aitatxo, amatxo ta Hodeitxu. Besarkada ear bat!

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**agurrak**

Mesedez,  
ekarri  
argazkia  
bi egun  
lehenago.

agurrak

Donostiako Kursalean "Bodas Gipuzkoa Expo-Feria" handienean gure lanaren erakustaldia egitera gonbidatu gaituzte. Hori dela eta **azarak 10 larunbata** eta **12 astelehena** ileapaindegia **ITXITA** egongo da. Barkatu eragozpenak.

**ESTILISTAK**  
**Donekin?**

☎ **943 67 22 44**  
Santa Maria plaza, 1 • TOLOSA

# Sanmartiñak 2007

## Jaiak bizi eta gozatu!

Gure artean ez daudenak gogoan hartuta ekin jaiari!



**Villabonako Udala**